

euskararen  
berripapera

eb

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA

Doako harpidetza:

**Papera:** Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia kalea, 1 - 01010 VITORIA -GASTEIZ

Tel.: 945 01 69 44 | berripapera@ej-gv.es

Bertsio digitala: [www.euskara.euskadi.net/berripapera](http://www.euskara.euskadi.net/berripapera)

SAKONEAN

01|02

BERRIAK

03

MOTZEAN

04



# Gaztelaniatik euskararako itzultzailea

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak gaztelaniatik euskarara itzultzen duen tresna jarri berri du herritar guztien eskura [www.itzultzailea.euskadi.net](http://www.itzultzailea.euskadi.net) helbidean. Urteetako lanaren emaitza da, eta erabilerari esker, joango da trebatzen eta hobetzen. Lucy Software enpresa alemaniarraren Bartzelonako filialak egin du tresna. Eusko Jaurlaritzak enpresa horri esleitu zion, lehiaketa publikoaren bidez, itzultzailea garatzeko kontratua. Horrez gain, UZEIk, Emergiatech-ek eta Gizerbitekek ere parte hartu dute proiektu honetan. /02

# Euskarazko testu laburrak eta webgunek itzultzeko tresna

ITZULPEN AUTOMATIKOKO SISTEMA HAU ORDENAGAILU PROGRAMA DA, TESTUAK GAZTELANIATIK EUSKARARA ITZULTZEN LAGUNTZEN DUENA. HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK BERAU HOBETZEN JARRAITUKO DU; HORREZ GAIN, 2013KO UDARAKO EUSKARA-ESPAINIERA ETA INGELESA-EUSKARA ITZULPEN-NORANZKOETAKO LANAK BUKATUTA IZAN NAHI DITU.



# H

asieran, Interneten bidez erabiltzeko modu mugatuan jarri da, hau da, testu laburrak (gehienez, 1.024 karaktere) eta webgunek itzultzeko. Geroxeago, Eusko Jaurlaritzaren intranetean jarriko da dokumentu luzeak itzultzeko, baina modu kontrolatuan, hau da, beti egongo da zuzentzaile bat gerora testua zuzenduko duena. Horrela, bezeroak beti itzulpen zuzena jasoko du eta, gainera, zuzentzaileak makinak egindako akatsak zuzenduko ditu sisteman. Prozedura horren bitartez sistema hobetuz joango da.

## GIZAKIA ORDEZKATU EZIN DUEN LAGUNTZA-TRESNA

Lucy Software enpresa alemaniarren Bartzelonako filialak (Lucy Software Iberica) egin du tresna. Eusko Jaurlaritzak enpresa horri esleitu zion, lehiketa publiko bidez, itzultzailea garatzeko kontratua. Bestalde, Euskadiko hiru enpresak ere parte hartu dute: UZEIk, hizkuntza-baliabideak prestatzen (datu-base lexikala) eta sistema probatzen eta zuzentzen; Emergiatech-ek, sistemaren gramatika konputazionalak diseinatzen

“

### ETENGABE GARATZEN

Sistema erabili ahala, joango da akatsak detektatzen eta uneoro zuzentzen.

eta inplementatzen, eta Gizerbitekek, itzultzailea Eusko Jaurlaritzako sistema informatikoan txertatzeko egin beharreko lanak burutzen.

Itzulpen automatikoko sistema ordenagailu programa bat da, testuak gaztelaniatik euskarara itzultzen laguntzen duena. Itzulpen automatikoko beste edozein sistema bezala, laguntza-tresna da eta ezin du giza itzultzailea ordezkatu. Itzultzaile automatikoak gramatika eta lexiko konputazionalak erabiltzen ditu, itzuli nahi den testuaren esaldi bakoitzaren azterketa morfosintaktikoa egiteko, programak hitz bakoitzarentzat itzulpen egokiena aukeratzeko eta, azkenik, esaldia euskaraz sortzeko. Itzulpen automatikoko programa batek ez du ulertzen itzultzen ari dena –gizakiak egiten duen moduan– eta esaldien itzulpen “mekanikoa” egiten du.

Esan bezala, laguntza-tresna bat da eta horrela erabili behar da. Beraz, behar-beharrezkoa da kontuan izatea honakoa: itzultzaile automatikoak euskarara emandako itzulpena erabili nahi bada aurkeztu edo argitaratu nahi den dokumentu edo testuren batean sartzeko, ezinbestekoa dela aldeaz aurretik itzulpen hori giza itzultzaile batek aztertzea eta zuzentzea.

Ahalik eta euskarazko itzulpen zuzenena lortzeko oso garrantzitsua

da gaztelaniazko testua ondo idatzi-ta egotea: akats ortografikorik gabe, azentuak zuzen ezarrita eta puntuazio markak egoki erabilia; gainera, sintaxia zuzena eta ez oso konplexua izan behar da. Bestalde, erabiltzaileak “erakutsi aukerak” laukitxoa hauta dezake, sistemak zenbait hitz itzultzeko dituen aukerak ikusteko. Adibidez, itzultzaile automatikoak “El tiempo ha sido bueno” esaldia itzultzeko, “erakutsi aukerak” laukitxoa hautatu gabe, “Denbora ona izan da” emango du; baina laukitxoa hautatuta, “Denbora/Eguraldia ona izan da” itzuliko du.

### ETORKIZUNARI BEGIRA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurrerantzean ere lanean jarraituko du espainiera-euskera itzultzaile automatikoa hobetzen. Baina,aldi berean, euskara-espainiera eta ingeleseuskarara itzulpen-noranzkoetan lan egiten ari da; eta, hortaz, 2013ko udarako prest egotea aurreikusten da. Lan-ildo hau martxan jarri da, beraz, eta etengabe landu eta hobetu beharko da. Azken finean, helburua da itzulpen automatikoaren sistema integral on bat izatea, eta hori gertatuko da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara berean lantzen ari den Itzulpen-memorien Banku Publikoarekin lotura egiten denean.

# Zinpeko itzultzaile eta interpreteen gaikuntza



2009ko maiatzaren 4an onartu zen zinpeko itzultzaile eta interpreteen habilitazioa edo gaikuntza arautzen duen Dekretua, eta ordutik hona egindako prozedurak izan dituen emaitzak ez dira nolanhikoak izan: 112 lagunek lortu dute euskaratik gaztelaniarako eta gaztelaniatik euskararako zinpeko itzulpen lanetarako gaikuntza, eta beste 42 lagunek, zinpeko itzulpen lanetarako

“

## 112 LAGUNEK

lortu dute euskaratik gaztelaniarako eta gaztelaniatik euskararako zinpeko itzulpen lanetarako gaikuntza.

gaikuntzaz gain, zinpeko interprete lanetarakoa ere eskuratu dute.

Gaikuntza lortzeko, bi izan dira bide nagusiak: zuzena eta proba bidezkoa. Eta, hain zuzen ere, bi formula erabili dira lehenengoa, zuzena, lortzeko: Atzerri Arazoetako Ministerioak emandako izendapenaren bidezkoa bata eta meritu bidezkoa bestea. Azken hori lege-, admi-

nistrazio- eta ekonomia-arloetan itzulpenak edo interpretazio-lanak aurretik eginda edukita lor zitekeen. Baina, ezohikoa izan denez gero, behin bakarrik egin dute eta ez dela berriro egingo jakinarazi da. Proba bidezko gaikuntza erdiesteko lehenengo deialdia 2011n egin zen eta, zuzenbide-proba, 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba, eta zinpeko itzulpen eta interpretazio proba espezifikoak gainditu dituzte gaikuntza bereganatu dutenek.

Lehenengo deialdi honek euskara-gaztelania hizkuntza-bikotea izan du xede eta, prozesuari jarraipena emanez, 2012. urtean ere aurreikusita dago probetarako deia egitea, baina oraingo honetan euskara-ingelesa eta euskara-frantsesa izango dira aukeratutako hizkuntza-bikoteak.

Horrez gain, 2011. urtean eraturako erregistroan jaso dira gaikuntza lortu dutenen datuak. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak fitxategi horretan jasotako zenbait datu argitaratu ditu bere webgunean, herritarrek zinpeko itzulpenak egiteko gaikuntza duten profesionalen berri izan dezaten, hain zuzen ere.

## ‘Berbatek’ hizkuntza-teknologietako proiektuaren emaitzak



*Berbatek* ikerketa estrategikoko proiektua da, eta Elhuyar Fundazioak, EHUko Ixa eta Aholab ikerketa-taldeek, Vicomtech teknologia-zentroak eta Tecnalia Research & Innovation Fundazioak osatzen dute proiektua gauzatzeko partzuergoa. Egitasmoa Eusko Jaurlaritzako Industria eta Kultura sailek finantzatu dute, Etortek ikerketa programaren barruan.

Ekimenaren helburu nagusia da hizkuntza- eta multimedia-teknologiak garatzea, itzulpenaren, irakaskuntzaren eta edukien sektoreek osatzen duten hizkuntzen industriaren sektore ekonomikoaren euskarri teknologiko izateko, eta, bide batez, industria horiek lehiakor izaten laguntzea.

*Berbatek*en garatu dituzten hiru demo aurkeztu berri dituzte: zientzia eta teknologiko bilatzaile semantiko multimedia bat, dokumentalen bikoizketa automatikorako demo bat eta hizkuntzen irakaskuntzarako tutore pertsonal bat.

## ‘Euskara Mintzagai’ bildumako lan berriak

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Labayru Ikastegiarekin eta Udako Euskal Unibertsitatearekin lankidetzan, 2007an abian jarri zuen *Euskara mintzagai* bildumako bi ikerlan argitaratu ditu: *Gure eskola-liburuak* (Pauli Dávila eta Lore Erriondo) eta *Belartzetik ihartzera* (Igone Etxebarria). Udako Euskal Unibertsitatearen eskutik dator lehenengoa, eta euskarazko testu-liburuak ditu aztergai. Bertan, beste batzuen artean, dotrina, gramatika eta silabario, ipuin eta elezahar zein testu-liburuen berri ematen da. Bigarrena, berriz, Labayru Ikastegiak prestatu du eta, besteak beste, udaberriko eta udako esae-rak, nekazaritza munduko ohiturak eta zenbait ohitura eta erritu jasozten dira bertan.



## BESTE HAMABI BIOGRAFIA ‘BIDEGILEAK’ BILDUMAN



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak *Bidegileak* bildumako 62., 63. eta 64. zenbakiak osatu eta argitaratu berri ditu. Lehenengo zenbakian honako biografia hauek jorratu dira: Jean Martin Hiribarren (1810-1866) (Xipri Arbelbide), Agosti Xaho (1811-1858) (Xabier Zabaltza), Bruno Etxenike Garmendia (1819-1893) (Rosa Miren Pagola) eta Joseba Altuna “Amilgain” (1888-1971) (Ander Altuna). Bigarrenean, berriz, bidegile hauek aztertu dira: Luis Andrés Unanue (1944-2009) (Arantzazu Muñoa), Xabier Lete Bergaretxe (1944-2010) (Inazio Mujika), Mario Onaindia Natxiondo (1948-2003) (Manu Gojenola) eta Joxe Migel Bidador Gonzalez (1970-2010) (Roldán Jimeno). Hirugarrenean, azkenik, honako hauek: Antonio Tovar Llorente (1911-1985) (Joakin Gorrotxategi), Yury Zytsar (1928-2009) (Natalia Zaika), Rudolf P. G. de Rijk (1937-2003) (Patxi Goenaga) eta Larry Trask (1944-2004) (Iván Igartua).

*Bidegileak* bildumako biografiak [www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net) helbidean daude erabilgarri.

## IV. Erabilera Planaren ebaluazioa eta plangintzaldi berrirako neurriak

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hasiera emango dio Herri Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko IV. Plangintzaldiaren ebaluazioari. Horretarako, ezinbestekoa izango da udalen, foru aldundien, Eusko Jaurlaritzaren eta beste zenbait administrazioen lankidetzak. Aipatutako Herri Administrazioek bere eremuan euskarak duen presentziaren diagnostikoa egingo dute eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari igorri. Horretaz gain, lan hori egiteko, hainbat lantalde eratu dira arduradun tekniko, politikari eta plan horien eraginpean dauden langileekin osatuak, V. Plangintzaldiaren atarian euskara-plan horiek hobetzeko eta zuzentzeko proposamenak egingo dituztelarik. Ebaluazio lan horrek datorren plangintzaldiaren (2013-2017) oinarri nagusiak finkatuak izan nahi ditu 2013aren hasierarako.

